



HERRITARRAK **EZ** GUTXIETSI eskubideak **guztiontzat!**

Eremu desberdinetan lan egiten dugun eragileak gara, feminismoaren esparruan, ekologismoan, bestelako jai ereduan, sexu-aniztasunean, errefuxiatuen eremuan, pentsio eta bizimodu duinen alde, gazteen esparruan, ekonomia solidarioan edota kultur-aniztasunaren aldeko jardunean ari garenak. Eremu desberdinetan lan egiten dugu baina helburu bakarra dugu, gizarte justu, kohesionatu eta berdinezaleagoa eraikitzea. Hau da, inor bazterrean utziko ez duen gizarte.

Izan ere, horrek batzen gaitu, egungo gizartearen antolatuta dagoen moduaren arabera, bazterrean nahi gaituzte, bazterrean kokatzen gaituzte, erdigunean beste eredu baten alde daudenei eta beste balore batzuei tokia eginez. Hori horrela izanik ere, uste dugu badela garaia elkarrekin erantzutarako erdigunerako bidea egiteko.

«**H**erritarrak ez gutxietsi, eskubideak guztiontzat» gure eguneroko aldarria da, herritarrak ez gutxiesteko eta guztiontzako eskubide berdinekin aitortu zein berma daitezkeen, berma dakizkigun lan egiten dugu. Hori dugu ardatz.

Eta, gaur hainbat eremu eta esparrutan egoera gutxituan dauden herritarrak gutxiestearen aurka eta berdintasunaren alde egiteak ekarri gaitu gaur honako adierazpen hau adostera, hizkuntzaren esparruan ere, ez dugulako herritarrak gutxiesterik nahi, hizkuntzaren esparruan ere guztiontzako eskubideak aldarrikatzen ditugu.

Harriduraz hartzen dugu egun Nafarroan euskal hiztunek pairatzen duten / dugun egiturazko bereizkeria. Ulergaitza ez ezik, ulertezina ere egiten da eskubideak eskualdearen arabera aitortzea. Ez genuke onartuko gure esparruetan, pertsona-kopuruaren arabera zehaztea eskubideak aitortu behar diren ala ez. Eta, guk lantzen dugun esparruetan onartzen ez dugunez, euskararen esparruan ere onartezina iruditzen zaigu.

Halaber, kezka handia sortzen digu Gobernuaren administrazio publikoetan prestatzen ari den Dekretuak. Eta ez gara hasiko puntuazioen gorabeherekin. Izan ere, gure ustez, badago zinez kezkatzen gaituen oinarria: ofizialak eta berezkoak ez diren hizkuntzei berezko hizkuntzari baino garrantzi handiagoa emango zaie. Hartara, zergatik egoera gutxituan dagoen kolektiboarekiko neurri proaktiboak hartu beharrean, herritar horiek are gehiago baztertu edota ikusgabetuko dituzten neurriak?

Beste norabide batean jokatu behar dute politika publikoek. Politika inklusiboak behar dira, herritar guztien eskubideen bermea ardatz izango duten politika feministak, inklusiboak, ekologistak, solidarioak, aurrerakoiak... baina bai eta hizkuntza-politikan ere.

Esan bezala erantzetan gaudenok elkarrekin hartu behar dugu erdigunean dagoen, erdigunean zor zaigun lekua. Horrexegatik, elkarrekin agertu nahi dugu «Herritarrak ez gutxietsi, eskubideak guztiontzat» leloaren azpian. Horrexegatik, geuk ere bat egiten dugu Euskalgintzaren Kontseiluak maiatzaren 7an Iruñean antolatutako manifestazioarekin.

Aliantza berriak eraikitzeko garaia da. Egoera gutxituan dauden kolektiboaren arteko zubiak eraiki behar ditugu; beste gizarte-eredu berdinezaleago, kohesionatuago eta justuago baten alde lan egiten dugunon arteko enpatia ehundu behar ditugu. Gaur, beste urrats bat egin nahi dugu bide horretan, eta gizartearen sektore batekiko gertatzen den gutxiespena salatu nahi dugu elkarrekin. Baina salatzeaz gain, hizkuntza-eskubideak guztiontzat bermatzea aldarrikatu nahi ditugu elkarrekin. Eta seguru gaude, bide honi jarraituz, berandu baino lehen berriz ere agertu beharko dugula modu kolektiboan beste esparru batean egoera gutxituan dagoen kolektiboaren alde, eta egingo dugu.



NO MENOSPRECIAR A LA CIUDADANÍA **eskubideak guztiontzat!**

Somos agentes que trabajamos en diferentes ámbitos, en el ámbito del feminismo, en el ecologismo, en otro modelo festivo, en la diversidad sexual, en el campo de las personas refugiadas, en favor de pensiones y formas de vida dignas, en el ámbito de la juventud, en la economía solidaria o en la lucha por la diversidad cultural. Trabajamos en diferentes ámbitos, pero nuestro único objetivo es construir una sociedad justa, cohesionada e igualitaria. Es decir, una sociedad que no deje a nadie al margen.

Nos une el hecho de que, según como está organizada la sociedad actual, nos quieren al margen, nos sitúan al margen, dando cabida en el centro a quienes están por otro modelo y otros valores. Aun siendo esto así, creemos que ya es hora de que juntos hagamos el camino de las periferias al centro.

«**N**o menospreciar a la ciudadanía, derechos para todas y para todos» es nuestro clamor diario, trabajamos para que no se menosprecie a la ciudadanía y se nos reconozcan, se nos garanticen derechos iguales para todas. Ese es nuestro eje.

Y la lucha por la igualdad y contra el menosprecio de la ciudadanía en situación de vulnerabilidad en diferentes ámbitos, nos ha llevado hoy a consensuar esta declaración porque, también en el ámbito lingüístico, no queremos que se menosprecie a la ciudadanía, también en el ámbito lingüístico reivindicamos derechos para todas y para todos.

Nos asombra la discriminación estructural que sufren actualmente las personas vasco parlantes en Nafarroa. No sólo se hace incomprensible, sino que resulta inaudito el reconocimiento de los derechos en función de la región. No aceptaríamos que en nuestros ámbitos se determinara si los derechos deben ser reconocidos o no en función de la cantidad de personas. Y, como no lo aceptamos en los ámbitos en los que trabajamos, también nos parece inaceptable en el ámbito del euskera.

También nos preocupa mucho el Decreto de Méritos que prepara el Gobierno para las administraciones públicas. No vamos a enrocarnos con las puntuaciones. Realmente creemos que hay una base que nos preocupa: se va a dar más valor a las lenguas que ni son oficiales y ni son propias que a la lengua propia de Nafarroa. Pero, ¿por qué en lugar de adoptar medidas proactivas hacia un colectivo en situación de vulnerabilidad, se toman medidas que van a excluir y/o invisibilizar aún más a esa parte de la ciudadanía?

Las políticas públicas deben actuar en otra dirección. Se necesitan políticas inclusivas, políticas feministas, ecologistas, solidarias, progresistas, que se centren en la garantía de los derechos de toda la ciudadanía, y las políticas lingüísticas también deben centrarse en esa garantía.

Quienes estamos en los márgenes, como hemos dicho, debemos ocupar el lugar que nos corresponde en el centro. Por eso queremos aparecer unidas/os bajo el lema «No menospreciar a la ciudadanía, derechos para todas y para todos». De esa manera, los colectivos aquí presentes también nos sumamos a la manifestación organizada por Euskalgintzaren Kontseilua el 7 de mayo en Iruñea.

Es hora de construir nuevas alianzas. Debemos tender puentes entre colectivos en situación minorizada; tejer empatías entre quienes trabajamos por otro modelo social más igualitario, cohesionado y justo. Hoy queremos dar un paso más en ese camino y denunciar conjuntamente el menosprecio que se produce hacia un sector de la sociedad. Pero además de denunciar, queremos reivindicar juntas la garantía de los derechos lingüísticos para todas y para todos. Y actuamos desde el convencimiento de que, siguiendo este camino, más pronto que tarde tendremos que volver a mostrarnos colectivamente a favor de distintos colectivos en situación minorizada en otros ámbitos, y así lo haremos.